

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foruzaingoko 102 patrullak uztailaren 15etik 17rako irteera-itzulera operazioan zehar errepideak zainduko dituzte

Abiadura eta alkoholemia-kontrol intentsiboak egingo dituzte errepideen sare nagusiko eta aisirako ohiko lekuetara ateratzeko bideetan

Jueves, 14 de julio de 2011

Foruzaingoak 102 patrulla bidaliko ditu trafikoa zaindu eta kontrolatzeko 2011ko uztailako bigarren hamabostaldiko irteera-itzulera operazioa dela-eta. Ostiraleko, uztailak 15, 07:00etatik, igandeko, uztailak 17, 22:00etara jardungo dira. Iazko kanpainan administrazioaren 69 salaketa izapidetu ziren gehiegizko abiaduran joateagatik eta salaketa bat alkoholemiako kontrolean positibo emateagatik.



Bi agente haien patrullako autoaren ondoan, AP-15 autobideko ordainleku batean

Foruzaingoak sare nagusiko eta aisirako ohiko tokietara joateko irteeretan (autobideak, autobiak eta errepide nagusiak) ohi agente gehiago jarriko ditu. Leku horietan abiadura eta alkoholemiaren kontrol intentsiboak egingo dira.

Zehazki, Foruzaingoaren Trafiko eta Bide Segurtasunaren Arloko dispositiboa (Iruñeko eta Tuterako polizia-etxeetako unitateek parte hartuko dute) 102 patrullak osatuko dute; horietatik 40 ostiralean bidaliko dira, 30 larunbatean eta 32 igandean.

Irteera-itzulera operazio horretan, eta udako gainerako egunetan, alkohola, abiadura eta gidarietan drogan antzemateko kontrolak burutuko dira. Gainera, arreta berezia jarriko da herriko jaiak ospatzen dituzten herrien inguruan. Iazko irteera-itzulera operazioan, 2010eko uztailaren 16tik 18ra, Foruzaingoak 12 radar jarri zituen eta 6.479 ibilgailu kontrolatu zituzten. Guztira, administrazioak 69 salaketa jarri zituen gehiegizko abiaduran joateagatik.

Horrez gain, alkoholemiaren kontrolerako 18 guneetan 763 gidari aztertu zituzten. Horietatik batek positibo eman zuen eta, beraz, administrazioak salaketa jarri zuen.

Foruzaingoak hauek gomendatzen ditu: gidariei arreta handiz gidatzeko, bidaia behar diren atsedanak egiteko moduan prestatzeko,

abiadura mugak eta segurtasun arauak errespetatzeko, eta ibilgailua bidaia egiteko egoera ezin hobean dagoela ziurtatzeko.

Foruzaingoaren zerbitzuak asteburuan

Foruzaingoak lau zerbitzu berezi eskainiko ditu asteburuan zehar, hiru kirol proba egin eta, Elizondon, igandean, Baztandarren Biltzarra ospatuko direlako.

Larunbatean, uztailak 16, 8:30ean, Altsasutik ibilbide zikloturista aterako da, eta 124 kilometro egingo ditu ondorengo errepideetatik: NA-2410 (Barranca), NA-718 (Lizarra-Olatzagutia), NA-7183 (Altsasu-Urbasa), NA-120 (Lizarra-Beasain), NA-7100 (Lizarragako portua-Arbizu), NA-7510 (Aralarko San Miguel), NA-7500 (Irurtzun-Madotz-Lekunberri) eta NA-7520 (Arbizu-Lizarragabengoa).

Larunbatean, 17:00etatik aurrera, Aiegiko Udaleko XV. Saria irabazteko ere lehiatuko dira. 66 kilometroan egingo da eta honako errepide hauetan zehar ibiliko dira: NA-1110 (Galar-Viana), NA-6340 (Allo-Antzin), NA-7451 (Murieta-Okoi), NA-132-A (Lizarra-Gasteiz), NA-132-B (Iguzkitzako saihesbidea), NA-718 (Lizarra-Olatzagutia), NA-7189 (Eraul), NA-120 (Lizarra-Beasain).

Uztailaren 17an, igandean, Foruzaingoa Fontellasen egingo den bizikleta lasterketa zaintzen arituko da. 11:00etatik aurrera izango da eta 52 kilometroko ibilbidean zehar ibiliko dira errepide hauetatik: N-232-A (Alfaro-Tutera-Zaragoza), NA-134 (Ebroren ardatza), NA-8703 (Tutera NA-125 errepidearekin lotzen den tartea) eta NA-126 (Tutera-Tauste).

Amaitzeko, Foruzaingoak zerbitzu berezia eskainiko du, Elizondon, Baztandarren Biltzarra egingo delako. Jaialdia dela-eta, herriko zeharbidea itxiko dute ekitaldiak amaitu arte (11:00etatik 15:30era, gutxi gorabehera). Antolaketaren arduradunek seinalezaturiko aparkalekuak prestatu dituzte.